



LIBURUA

# Berrikuste bat



JON URBE / FOKU



## BIDEA ETA ZAURIA ANTOLOGIA

BALEA ZURIA, 2021

### IGOR ESTANKONA

**B**este antologia alferreko bat, esango luke nonork. Unibertitate esparruko lan zentzubako bat, agian. Poeten hautaketa ere duda-mudakoa, eta ikuspuntu partzial horrekin nekez atera daitekeela ondorioz. Baina hara non, Jon Kortazar eta Paloma Rodríguez-Miñambresen *Bidea eta zauria, sei poeta (2000-2019)*, Balea Zuriak oraintxe argitaratu berria, begitandu zaigu ibilian egin ohi den geldialdi intelektual horietako bat: "Irakurtzen ari zaren lan honen iturria 2020aren hasieran Badajozen argiratzten den *Sudoeste* aldizkariko zuzendari Antonio Sáez Delgadok egin zigun dei bat da". Eta horrela, eleberri baten edo kronika baten hasiera.

Eta hari horri tiraka Jon Kortazar eta

Paloma Rodríguez-Miñambresen hitzurre aski interesgarria, datuz hornitua eta uneka harrigarria ondu dute bilduma honen iturri eta era berean helburu dena: "1980tik gaur arte, lau urtetan ez da poeten jaiotzarik erregistratu: 1987, 1989, 1992 eta 1995ean. Are tristeagoa, 2003 eta 2005 urteetan 1980tik aurrera jaiotako poeta multzoak ez zuen obrarik argitaratu". Izan ere, autoreen ustez, poesia apurka-apurka itzaltzen ari den garra da Euskal Herrian, bere helburu nazional-berpizkundekoa, bere helburu apurtzailea, bere helburu estetikoak galduxe dituen adierazpidea izaki. Horri erantsiz gero kritika literario serio baten falta, bada, bistaratzen den panorama ez da oso itxaropentsua.

Dena dela, gero poetek hitz egiten dute: Peru Magdalena, Jon Benito, Hasier Larretxea, Ione Gorostarzu, Iñigo Astiz eta Beatriz Chivite. Lehen hirurak, agian, ezin ukitu litezkeen gauzetaz ari dira gehiago eta azken hirurak, beharbada, introspektzioa jazoeretan bilatu-zaleak dira. Denak dira 1980tik aitzina jaiotakoak, denak irakurri ditugu, denek dute bilatzen gu bat, denek amesten etorkizuna, su hori: "Muino urperatuak ikusten ditugu paisaian/ lurrean iragazten zaizkigun oinetakoak/ eta gure begientzat desagertu den kea" (Jon Benito, *Aingurak erreketan*, Susa, 2001). Edo Felipe Juaristik liburuko azken hitzean dioen legez, "unibertsoa hartu nahi dute". Hona hemen gida antzeko bat bihar-etzi etorriko diren euskal poeta guztientzat. ●